

## Mailegu publikoaren aldeko adierazpena

### Kontuan hartuta

liburutegi, museo, agiritegi, hemeroteka, fonoteka eta filmoteka publikoek, zein kultura, zientzia edo hezkuntzaren arlokoak izanik denen interesekoak eta irabazteko asmorik gabekoak diren erakundeenek edo espainiar hezkuntza-sistema barruan hartutako hezkuntza-erakundeenek:

1. pertsona guztiei ezagutza, pentsamendu, kultura eta informaziora heltzeko bide libre eta mugagabea **BERMATZEN DIETELA**  
(Irakurketa Sustatzeko Plana 2001-2004. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa).
2. oso egiteko garrantzitsua **BETETZEN DUTELA** gizarte demokratikoa garatzeko eta mantentzeko, era askotako ezagutza, ideia eta iritzi ugariara heltzeko bidea erraztuz.  
(Liburutegi publikoetako zerbitzuak garatzeko IFLA/UNESCO jarraibideak, 2001)
3. Bereziki haur eta gazteen artean irakurtzeko ohituraz jabetzea eta hori hobetzea **SUSTATZEN DUTELA**.  
(Irakurketa Sustatzeko Plana 2001-2004. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)
4. Funtsezko eginkizuna **BETETZEN DUTELA** hezkuntza-sistemen garapenean, prestakuntza-aldi ezberdinetako ezagutzez jabetu eta horiek onartzeko behar diren baliabideak eskaintzen dituztelako.
5. Edonolako erakundeen bidez egiten diren ikerketa-lanak laguntzeko ezinbesteko eginkizuna **BETETZEN DUTELA**, erabiltzaileen eskura jartzen dituztelako bere lana garatzeko behar dituzten obrak eta sortze-lanak.
6. Kultur ekoizpenaren erakuslehoarena **EGITEN DUTELA**, beren funtsetan intelektualek, zientzialariek eta artistek sortutako lanak gorde eta publikoaren eskura jartzen dituztelako. Azken hauek, gainera, beren ideiak zabaldu eta jakitera emateko doako bidea izateaz baliatzen dira.
7. Mota guztietako lanen hedapena, kontserbazioa eta horietara heltzea **ZIURTATZEN DUTELA**, merkataritzaren interes puntualak, lanak banatzeko ahalmena eta merkatuaren diktadura alde batera utzirik.
8. Egile-eskubideekiko errespetua babesten duten zerbitzuak **ESKAINTZEN DITUZTELA**, erabiltzaileen artean gai horren inguruko ezagutza hedatzeko bide izanik eta erabiltzaile horiek lan eta mailegu babestu horiek errespetuz erabiltzeko prestatuz.
9. **EZ DITUZTELA** ez irabazteko asmo ezta helburu ekonomiko edo komertzial zuzen nahiz zeharkakorik, euren helburu bakarra erabiltzaileen kultur, hezkuntza eta giza garapena delarik, eta bide batez, hezkuntza-mailaren hobetzea eta, oro har, gizartearen lehiakortasuna.
10. Hiritar guzti-guztienak **DIRELA**, denok zergen bidez jartzen dugun diruaren bidez ordaintzen direlako.

(Irakurketa Sustatzeko Plana 2001-2004. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)

**Ziur gaude, eta horrela adierazi nahi dugu, ondokoak behar direla:**

1. Egile, editore eta gizartearen arteko bidezko oreka **ZIURTATZEA**, egile-eskubideen inguruko lege-esparruaren bidez.
2. Gizartearen interes kulturalak **BERMATZEA**, horrek ikerketaren sustapenez eta sortze-lan intelektualen bidez garatu eta aurrera egiten baitu. Azken hau da jabetza intelektuala arautzen duen lege-esparruak ezartzen dituen mugen oinarrietako bat.
3. Indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren inguruko Legeak 37.2. artikuluan maileguetarako ezartzen dituen mugak, kultura sustatzeko politika baten instrumentu eraginkor gisa **IRAUNARAZTEA**, izan ere, alokatze eta mailegatzeari buruzko 92/100/CEE Arteztarauarekin ere bat baitator. Delako Arteztarauak 5. artikuluan, maileguak kobratzearen ingurukoan, Estatu Kide bakoitzak kultura sustatzeko dituen politiken arabera askatasunez erabakitze aukera ezartzeaz gain, hainbat establezimendu delako ordainketatik libre uzteko ahalmena ematen die.
4. Goian aipatutako erakundeok eskaintzen ditugun mailegu-zerbitzuen balioa **NABARMENTZEA**, titularrari hiritar zein sortzaile gisa onura ekartzen diolako. Mailegu-zerbitzuak irakurleak, eta beraz, lanen kontsumitzaileak, sortzeko ezinbesteko tresnak dira.
5. Goian aipatutako erakundeok eskaintzen ditugun mailegu-zerbitzuen garrantzia **AZPIMARRATZEA** hezkuntza eta ikerkuntza bultzatzeko ezinbesteko trena gisa.
6. Sortzaileen eta, oro har, editoreen aldeko zuzeneko onura den heinean, erakunde publikoek honelako zentroetarako funtsak erosteko egiten duten inbertsioaren garrantzia **AGERIAN JARTZEA**. Gainera, kultur garapenaren alde egile eta editoreek egiten dutenaren garrantziari buruzko aitortpen zehatza da inbertsio hori.
7. Goian aipatutako erakundeek obra jakin batzuk erostea, horien edizioa bermatzeko ezinbestekoa dela **ONARTZEA**.
8. Mailegu-zerbitzu publikoen kontrako edonolako zigor-mota **ERAGOZTEA**, lortu nahi dituzten helburuen kalterako bailitzateke, hots, zerbitzatzen duen gizartearen onura baino ez.

Horrengatik guztiarengatik, **Jabetza Intelektualaren inguruko Legeak ezartzen duenaz libre dauden liburutegi eta antzeko zentroetan burutzen den mailegu publikoa ordaindu behar izatearen kontrako ERREFUSATZEA azaldu nahi dugu eta arduradun publikoek, erakunde hauetarako egun dagoen mailegu-muga BERE HORRETAN mantentzearen alde egin dezatela eskatzen dugu.**